

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

433

2/2012 DEKRETUA, urtarilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa.

Irailaren 5eko 2224/1962 Dekretuaren bidez (BOE, 215. zk., irailaren 7koa), Donejakue Bidea multzo historiko-artistiko izendatu zen, baina bidearen ibilbidea zein den grafikoki dokumentatu gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoak erabat bereganatuta dauka Kultur Ondarearen arloko eskumena, Konstituzioaren 148.1.16 artikuluen babesean eta Autonomia Estatutuaren 10.19 artikulua xedatutakoaren arabera. Kultur Ondarearen arloko eskumen eskusiboa baliatuz, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea onartu zen.

Hala, urtarilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren bidez, Monumentu Multzo kategoriako Kultur Ondasun izendatu zen Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia. Orduan zehaztu zen grafikoki bidearen trazadura, baina garrantzi gehiago eman zitzaion eduki xakobeoaren aldetik garrantzia zeukaten mugarriak lotzeari, trazadura bera bide fisiko moduan zehazteari baino. Horrek erabat lauso utzi zuen, definitu gabe, bidearen trazadura; baina ondorengo azterlanek zehaztaperen gehiago eman dute apurka-apurka.

Ildo horretatik, ondoren egin diren azterlanek bertatik ibiltzeko moduko ibilbide erreala eta fisikoa finkatzea hartu izan dute helburu; ibilbide etenik gabea eta segurua behar zuen erromesentzat, eta lehentasuna ematen diena leku historiko eta publikoei; baina leku edo gune gogoangarrien segida hutsa izan beharrean, gehienetan, bide historiko edo galtzada publikoez lotu dira leku gogoangarriok, ahal izan den heinean, alde batera utziz errepideak eta bide arriskutsuak.

Horrenbestez, XXI. mendeko ibilbidea finkatu da, historiaren joanean moldatua, eta zeharkatzen dituen lekuetako kultur ondarea agerian jartzen dituen; erakutsiz, ibilbidean zehar han-hemen agertzen diren mugarriak garapen historikoaren eragile eta eragin direla, aldi berean. Ibilbide kulturala, denboran joanean gertatutako elkartruke kultural, sozial eta ekonomikoen isla egiten duena. Zehaztaperen hau guztia sartuta, atzean utzi dugu kultur ondasunei buruzko ikuspegi estatiko eta isolatua; orain, ibilbidea elementu dinamiko eta bizia da, bidea sortu zuten herrien eta heredatu duten herrien bizitza sozialaren funtsezko osagaia.

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen 2010eko uztailaren 29ko Ebazpenaren bidez (irailaren 6ko EHAA, 171. zk.), Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzeko espedientea abiaraztea erabaki zen.

Informazioa jendaurrean jarri eta horretan interesa dutenei entzunaldia emateko epea zabaldu ondoren, oro har, hiru alegazio-mota aurkeztu dira: alegazio batzuk Bidearen ibilbideari buruzkoak dira, eta argitaratutakoa aldatu eta ibilbide-aldaera batzuk sartzeari edo hainbat aldaketa egitea proposatzen da. Beste batzuk Bideari lotutako ondasunei buruzkoak dira, eta hainbat elementu sartzeko edo ateratzeko eskatzen da. Eta hirugarren multzoa babes-erregimenari buruzkoa da, eta bertako arau batzuk kentzeko, edo aldatzeko, edo arau berri batzuk sartzeko eskatzen da.

Beharrezko txosten teknikoak egin ondoren (espedientean jasota daude), eta haietan azaldutako arrazoieta oinarrituta, alegazio batzuk onartu dira eta beste batzuk ez; arrazoiak ez dira dekretu honetan berriro errepikatuko asko direlako eta luze joko lukeelako. Beste aldetik, espedientea abiarazteko eta informazioa jendaurrean jartzeko 2010eko uztailaren 29ko Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearen Ebazpenean aurkitutako hainbat akats material zuzendu dira.

Ondorioz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 11.1. eta 12. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek egindako aldeko txostena ikusirik, Kulturako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzea.

2. artikulua.— Indarrean dagoen Kultura Ondareari buruzko legeak aurreikusten dituen ondorioetarako, sailkatutako ondasunen deskripzioa egitea, dekretu honen I. eranskinean agertzen den moduan.

3. artikulua.— Dekretu honen II. eranskinean agertzen den mugaketa ezartzea ondasunari, eranskin horretan bertan ematen diren arrazoiengatik.

4. artikulua.— Dekretu honen III. eranskinean ezartzen den babes-erregimena eta IV. eranskinean jasotzen den atxikitako ondasunen zerrenda onartzea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— Kultura Sailak Donejakue Bidea Euskal Kultura Ondarearen Zentroari atxikitako Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistroan inskribatuko du.

Bigarrena.— Jabetza Erregistroari igorriko dio Dekretu hau Kultura Sailak, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikulua adierazten dituen ondorioetarako, eta interesdunei jakinaraziko die, nola diren, Donejakue Bideak zeharkatzen dituen udalak, Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Saila eta Euskara, Kultura eta Kirol Saila, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Saila eta Kultura Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria, Kultura eta Kirol Departamentua eta Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Departamentua, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Hirugarrena.— Kultura Sailak Donejakue Bidea igarotzen deneko herrietako udalei eskatuko die udaleko hirigintza-araudia Monumentu Multzo horri ezarritako babes-erregimenari egokitzeko, horrela Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.2. artikuluan ezarritakoa betez.

Laugarrena.— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako aldizkari ofizialetan argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Monumentu Multzoren mugaketak barne hartu duen eremu batean egin behar diren lanek dagokien foru-aldundiko organo eskudunen baimena beharko dute. Baimen hori udal baimena eskuratu aurretik lortu beharko da, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29.1 artikuluan ezartzen den bezala.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe uzten da 14/2000 Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Donejakue Bidea Monumentu Multzoz izendapenez, Kultura Ondasun gisa sailkatzeko dena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Administrazio-bidea amaitzen du dekretu honek, eta haren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dezakete Gobernu Kontseiluan hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, dekretu honen azken argitaratze-egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Bigarrena.— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urtarrilaren 10ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA, URTARRILAREN 10EKO 2/2012 DEKRETUARENA

DESKRIBAPENA

DONEJAKUE BIDEA EUSKADIN.

Euskadiko Donejakue Bideak bi ibilbide ditu: bata, ekialdetik mendebaldera doa, Gipuzkoa eta Bizkaia zeharkatuz, eta, bestea, iparraldetik hegoaldera, Gipuzkoatik eta Arabatik igaroz. Ibilbideetan zehar, Donejakue Bidea lehen mailako ondare-multzoekin eta –elementuekin dago lotuta; horiek guztiak, hain zuzen, zeharkatzen dituen lekuen eta guneen adierazpen dira.

A) Kostaldeko Bidea.

Ramon Menendez Pidal historialariaren hitzetan, Kostaldeko Bidea Santiago Konpostelakora erromesaldian iristeko lehenengo bideetako bat da, gerora benetako bidetzat hartu izan diren zenbait baino lehenagokoa; bide hori, hasiera batean, Bizkaiko golkoaren paralelo iragaten zen, Bizkaiko mendebaldeko mugetara arte. Donejakue Bidearekiko debozioaren lehenengo hamarkadetan (IX. eta X. mendeetan), ibilbide hori aukeratu zuten erromesak aurki ditzakegu; horiek, hain zuzen, antzinatek finkatutako galtzadak erabiltzen zituzten. Compostelako tradizioaren hastapenetan, Pirinioak gurutzatzen zituzten erromesek zeharkatu beharreko Nafarroako bideak musulmanen mehatxupearantz zeuden; Kostaldeko Bidea, beraz, seguruagoa zen. XIII. mendetik aurrera, Gipuzkoa Gaztelaren barruan sartzearen ondorioz bideetan egin ziren hobekuntzak direla-eta, San Adriango tuneletik igarotzen zen bidea garrantzia hartzen hasi zen; Kostaldeko Donejakue Bideak ongi eutsi zion lehiari, eta indartuz jarraitu zuen, hura aukeratzen zuten erromesei eta, urruneko herrialdeetatik etorrira, Gipuzkoako edo Bizkaiko edozein portutan lehorreratzeko ziren bisitariei esker.

Aurkitzen zuten Gipuzkoako lehenengo zatia, ordea, ez zen inola ere ibilbide eroso. Bidasoaren ibai-ahotik Bizkaiko mugaraino, Oiartzun, Urumea, Oria, Urola eta Deba ibaiek hautsi egiten dute itsasora heltzean Gipuzkoako kostaldearen jarraitutasuna, eta horrek zaildu egiten zuen bertatik oinez ibiltzea. Zenbait bidaiariri zirrara handia eragin zion ibilbide horrek «lekuaren laztasuna, biztanleen basatikeria eta nonahi aurki daitezkeen Ozeanoaren itsasadarren indar harrotua» zirela-eta. Horiek izan ziren, esaterako, Hugo de Oporto Portugalgo apezpikuak 1120an egindako bidaiaren egin zituen adierazpenak.

Zailtasun horiek, Gipuzkoako kosta malkartsua zeharkatzearen ondorio izan daitezkeenak, desagertu egiten dira Markina-Xemeindik barna Bizkaian sartu eta Lea-Artibai eskualdeko haran lasaietan barna ibili orduko.

Europako erdialdetik nahiz iparraldetik abiatuta eta Baionatik igaro eta gero, egun Rue de Santiago izena duen lekura iristen ziren erromesak (Hendaia); han zegoen eraikita Zuberoako Abadia, eta, bertan, prioreak hartzen zituen, ondoan zegoen ospitale batean (hala agertzen da 1355 inguruko dokumentuetan).

Kostaldeko Bidea Hendaiaitik sartzen zen penintsulara; txalupan zeharkatzen zen Kanetako portutik Hondarribira iritsi arte, eta lehorreratu, berriz, Santa Engrazian nahiz Santa Maria Magdalenan lehorreratzeko zen. Izan ere, leku hori askoz ere seguruagoa zen itsasora irekiago zeuden eta Bidasoaren barra arriskutsua eta aldakorra zeharkatzen zuten eremuetan egindako beste kokalekuak baino; horietan, alferrikako arriskua izaten zen.

1200. urtean, jada, Hondarribia gotorlekutzat agertzen zen, eta egun, oraindik, garai hartako harresien zati bat eta Karlos V.aren gaztelua aurki daitezke. Donejakue Bideak hiribilduaren alde zaharra alderik alde pasatzen zuen, Kaizarra kaitik hasi eta Santa Engrazia basilizara arte, eta, egun, oraindik, hala egiten du; basilizaren ingurutik Jaizkibel mendirako igoera hasten da. Igoera horretan, Santiagotxo basilizan, Irundik sartzea erabaki zutenen bide-adarrarekin egiten du bat, eta handik Guadalupeko Andre Mariaren santutegirako igoera hasten da.

Bideak aurrerantz jarraitzen du gailurreko lerroa zeharkatzen duen bidezidorretik barna, eta, gorantz eginez, antzinako Erramuz eta Santa Barbara dorretzarrak lotzen ditu; hala, Jaizkibelgo gailurrera iristen gara, eta, han, San Enrikeren gaztelua aurki daiteke. Poliki-poliki beherantz egiten da, eta, beste bi dorrearen ondotik igaroz, Lezoko alde zaharrera jaisten da. Lezoko udalerria zeharkatuz Bideak Pasai Donibane ondoko herrirantz jarraitzen du; han, umildegiairen alboan, motordun txalupan sartu behar da, portuko bokalea zeharkatu eta Pasai San Pedrora iristeko. Azken udalerri horretan, Zilarrezko Itsasargiraino iristen da, hilerriaren ondotik pasatuz.

Itsasargitik abiatuta kostaldeko bidetik jarraitzen du Bideak, eta, Ulia mendia zeharkatuz, Donostia-San Sebastiánera iristen da. Kostaldeko lerroari jarraituz, sartzen da hiriburuan; beraz, Kursaalaren, Bulebarraren eta Kontxako pasealekuaren aurretik igarotzen den ibilbidea egin behar da, Ondarretako lorategietara iritsi arte. Handik, Igeldo mendira igotzen da. Bidearen zati honetan, Gipuzkoako hiriburuko landa-guneko zenbait baserriren ondotik igarotzen da, Irangure eta Egiluze baserrien hondotik, esaterako.

Donejakue Bidea Orion sartzen da, eta, bertan, alde zaharrera jaitsi aurretik, Lusarbe, Munioeta eta Aganduru baserrien eta San Martin basilizaren ondotik igarotzen da. Itsasadarra igaro eta Altxerri ubidea gurutzatuz, Aiako udalerrira iristen gara. Donejakue Bidea San Pablo basilizaren eta Oribazar hondartzaren ondotik igarotzen da, eta, handik, txakolina egiteko mahastiak dauden gune batera zuzentzen da, Torretxo eta Oribar baserriak atzean utzita.

Ibilbidearen hurrengo udalerria Zarautz da. Alde zaharrean sartu aurretik, Agirrebekoa baserriaren ondotik igarotzen da, bai eta frantziskotarren komentuaeren atzetik ere. Udalerraren erditik pasaz, Aldapeta aldapan gora egiten du, Zarautz eta Getaria lotzen zituen galtzada zaharretik; bidean Santa Barbarako basilizaren gertutik igarotzen da, eta, galtzada atzean utzita, Getariarantz jarraitzen du.

Getariako herrigunetik Askizuko galtzadatik barna irteten da, eta Gaintza eta Akerregi Txiki baserrietara iristen da; handik, Azti pasealekurantz egiten du, eta, zuzenean, Askizu auzora igotzen den bidea hartzen du. Han San Martin eliza dago. Inguru horretan, Zumaia iritsi aurretik, Arano baserriaren aurretik pasatzen da. Zumaia-antz jaisteko bidea zuhaitzi batetik igarotzen da, eta, gero, pasealeku batetik jarraitzen du, Zuloaga Museora eta Santiago basilizara iritsi arte; hala, Urola ibaiaren gaineko oinezkoentzako zubi batera iristen da. Bertatik, Narrondo ubidea igarotzen da, oinezkoentzako beste zubi bat zeharkatuz, eta Zumaia-ko herrigunera igotzen da.

Donejakue Bidea Zumaia-ko irteten da Sorazu eta Arritokieta kaleetatik gora eginez, eta izen bereko basilizara eta hilerriara iristen da. Behin Deban sartuta, Elorriaga herriguna zeharkatzen dugu, eta han San Sebastián basiliza dago. Landa-gune batetik jarraitzen du, eta, han, Mardari auzoko baserriak aurkitzen ditugu, Deba udalerrian; besteak beste, Zubeltzuzar baserria eta Santuarian benta azpimarratu behar dira, Mardari-ko landa-gunetik urrun samar daudenak. Usabaratza baserria igarota, Itziar-ko gainera iristen gara; han, Andre Mariaren eliza nabarmendu behar da. Bideak San Roke basilizatik barna jarraitzen du, Debako alde zaharrera iritsi arte.

Donejakue Bideak Deba atzean uzten du Sasiolako ospitalera eta komentura doan bidetik, Mutrikuko Astigarribiko San Andres elizara iritsi aurretik.

Beste ibilbide bat ere badago, Kalbariokoa, alegia. Debatik irteten da Mutrikuko zubitik barna. Laranga auzoa zeharkatzen du. Gero, aurrera jarraitzen du Maiako Kalbarioa baselizara iritsi arte, eta, bertatik, Aparainera jotzen du; aurrez, ordea, Eizagirre baserriaren ondotik pasatzen da. Ibilbide horrek bat egiten du Bidearekin Aparain lepoan, izen bereko estelatik gertu, eta, gero, Olatzerantz jarraitzen du Donejakue Bidea.

San Isidro baseliza atzean utzita, bidegurutze batera iristen gara, eta, han, mendi-bide bat hartzen da, Gorostolamendi muinorantz; horrek, hain zuzen, Bizkaia eta Gipuzkoa banatzen ditu. Donejakue Bideak Jangoikomendi inguratuko du, eta, gero, beherantz egingo da, honako baserri hauen ondotik pasatuz: Damukorta, Arnoate eta Sakoneta. Aurrera jarraitzen da, eta, Amulategi baserria igaro eta gero, jaitsiera gogorra dago, Markinako plazara iritsi arte; gun e horretako eraikin esanguratsuenetakoak dira Barroeta dorrea eta Arretxinagako San Migel baseliza. Gernika alderantz jotzen du, Erdotzako Andre Mariaren baseliza eta umildegia atzean utzita. Ibaia Kareaga zubiaren bidez gurutzatu, eta erreka ren paralelo jarraitzen du, Iruzubietako gun e txikira iritsi arte.

Bolibarrerantz abiatzen da mendi-bide batetik, Altzaga auzoa osatzen duten baserrietara iritsi arte. Bideak aurrera jarraitzen du, eta, Simon Bolibarren Museoaren ondotik pasaz, plazaraino iristen da. Gero, Ziortzako kolegiatarantz egiten du, eta, han, erromesentzako ostatu bat ikus daiteke. Kolegiata atzean utzita, Gerrikaitzerako bideari ekiten dio; bidean, Gorontzugara muinoa eta Uriona auzoa zeharkatzen ditu.

Andra Mari elizak antzinako Gerrikaitz hiribilduaren sarrera adierazten du. Errepidean behera egiten da Munitibar aldera, eta, han, plaza zeharkatuko da, San Bizente Martiriren elizara iristeko. Gernikara bidean, elementu nabarmen batzuen ondotik pasatzen da; besteak beste, Urnatei, Bekoerrota eta Bolukua baserriak Munitibarren, eta Berriondo eta Zarra Mendatan. Zarra auzoan, San Pedro baseliza dago, bai eta Montalban dorrerako bidea ere. Bideak aurrera jarraitzen du mendi-mazelatik barna, antzinako galtzadaren bide-zati batera iritsi arte; berreskuratutako bide-zati horrek Zarra auzoa eta Arrantzuko elizatea lotzen zituen. Urdaibaiko hariztirik ederrena pasa eta gero, Artzubi zubira iristen da; hortik gora eginez, Elexalde gunera heltzen da, Arratzun.

Arratzuko Santo Tomas elizan, gurutze-bidea hartuko da, Golako ibaiaren ertzera arte; hortxe dago Olazarrako antzinako burdinola. Golako ibaia gurutzatuz, Marmiz auzora igotzen da. Ugari dira ibilbidea gurutzatzen duten baso-bideak, Ajangizko gunera iritsi aurretik. Hortik Gernika-Lumora jaisten da, Erreterriako antzinako portua izan zen lekura daraman errepidetik. Gernika-Lumoko monumentu-gunea zeharkatuz, Donejakue Bideak Zearretik jarraitzen du Lurgorri auzora arte; tartean, Mestikabaso izeneko lekutik pasatzen da.

Santa Luzia baselizatik abiatzen da Donejakue Bidea Errigoitirantz. Errigoitiko Pozueta auzoan dauden hainbat baserriren ondotik pasatzen da, eta, bertatik, Larrabetzura doan errepidea gurutzatzen du, Gerekizko San Esteban baselizara iristeko. Bertan, Eskerikara daraman bidea hartu behar da, eta Landotz eta Pepiena baserriak igaroko dira, hurrenez hurren; gero, Larrabetzurantz jarraituko du, Barrenetxe auzora iritsi arte. Han, auzo-bidetik jarraitu behar da, Erkinkotik pasatuta, Goikoelexaldera iritsi arte.

San Emeterio eta San Zeledon en eliza eta gurutzea atzean utzita, Larrabetzuraino jarraitzen du, eta, handik, Lezamarako bidea hartzen du. Kristo Gurutziltzatuaren baselizaren ondotik pasatuz, Zamudioko San Martin elizara iristen da. Elizatik gorantz egiten du Donejakue Bideak; autobia ren gainetik pasa, eta bide zahar bat hartzen du, Gaztanazabalaga baserriaren hondarrak dauden lekura eramaten duena. Iturritxualde (Avril) mendira iritsi aurretik, Zamudiotarren Bidearen arrastoak daude; hortxe hasten da, zehazki, Bilborako jaitsiera.

Donejakue Bidea Arabella auzotik sartzen da Bizkaiko hiriburura; bertatik Begoñara jaisten da, Mallonako galtzadatik, eta, hala, Bizkaiko hiriburuko Santiago katedralera iristen da. Dendarikale kaletik jarraituz, itsasadarra zeharkatzen du San Anton Zubitik igaroz. Ibilbideak aurrera egiten du San Frantzisko eta Autonomia kaleetan barna, eta, Kobeta mendia igaro eta gero, Kadagua ibaiaren gaineko Deabruaren Zubiarekin egiten du bat; hori da, hain zuzen, Bilbao eta Barakaldoren arteko muga naturala.

Urgozo auzoan, errepide txiki bat hartu behar da; hura hartu eta berehala, Santa Ageda baselizara doan Erdi Aroko galtzada ikus daiteke. Hortik Gurutzeta auzora jaisten hasten da, eta, azken horretatik, Erretuerto auzora. San Bizente auzora arte jarraitzen du bideak, Galindo ibaiaren ertzero arte, eta hura oinezkoentzako zubi baten bidez gurutzatzen du. Donejakue Bidea Urbinagako gunera arte iristen da, eta Sestao zeharkatuz udaletxera heltzen da; han bira egin eta gero, Portugaleteko Santa Maria elizarantz abiatzen da.

Portugaleten, Donejakue Bideak Urtuellarantz egiten du, eta, handik, La Arena hondartzara jarraitzen du. Bide-zati hori garai batean trenak zuen bidetik igarotzen da; trenbidea inguruko meatzeetatik ateratako minerala garraiatzeko erabiltzen zuten. Behin Zierbenara iritsita, Donejakue Bidea Barbadun ibaiaren gaineko metalezko zubira arte iristen da; zubi horretatik ibaia zeharkatu daiteke, Pobeñara arte. Laguntzako Andre Mariaren baselizaren ondotik pasatzen da, eta eskailera batzuetatik gora igotzen da meategiko trenaren antzinako bidetik; La Arenako zamatzeko tokian amaitzen da. Egun, ibilbide hori «bide berdea» bihurtu da, eta Cobaronen amaitzen da, Euskadiko Donejakue Bidearen amaieran. Leku horretatik aurrera jarraituz, Kantabriako lurretan sartzen da, Onton kostaldeko udalerritik barna.

Kostaldeko Donejakue Bideak adar bat du; hain zuzen, Kadagua ibaiari jarraituz, Bilbao Bizkaiko hiriburua Frantziako Donejakue Bidearekin lotzen du, Burgosko probintzian, zehazki.

Donejakue Bidearen ibilbide horrek Urgozo auzoan (Barakaldo) agurtzen du Kostaldeko Donejakue Bidea, Deabruaren Zubitik barna Kadagua ibaia zeharkatu eta gero. Hortik Irauregi auzorantz abiatzen da (Alonsotegi), eta, berriro, Kadagua ibaia gurutzatuz (Gidako Ama Birjinaren baselizara arte), Güeñesko La Cuadra auzora iritsiko da. Gero, Soduperantz egiten du, eta Iturriagako San Martin baselizara iritsiko da; bideari jarraituz, Güeñesko udaletxera eta Santa Maria elizara helduko da. Aranguren auzora arte jarraitzen du, eta hortik Zallako herrigunera. Zariketeko San Pedro baselizarako bidea albo batera utziz, Bolunburuko burdinolaren ingurura jotzen du. Balmasedara doan bidea hartzen du, Kadagua ibaiaren paralelo, Herrerako garai bateko eskoletara iritsi arte, eta, azkenean, Balmasedako udalerrian sartzen da, Madalena auzotik; han, galtzada zaharraren hondarrak aurki daitezke. Berehala sartzen da Balmasedako alde zaharrean; hiribildua atzean uzten da Zubi Zaharra gurutzatuz, Bizkaia eta Gaztela arteko pasabide zaharra, hain zuzen. Hala, Burgoserako bidea hartzen du, eta, han, Mena Harana zeharkatu eta gero, Frantziako Donejakue Bidearekin egiten du bat.

B) San Adriango Tunelaren Bidea.

Barnealdeko Donejakue Bideak Euskadin duen pasabidea Iberiar penintsularen iparraldeko komunikazio-ardatz nagusietako bat izan da erromatar garaitik. Galtzadaren hondarrak eta antzina artzaintzarako erabiltzen zituzten bideen aztarnek frogatzen dute oso garrantzitsuak zirela Santiagora egiten zituzten erromesaldietan; bertatik ezinbestean pasa behar zuten, Irundik barna Frantziako Donejakue Bidearekin bat egiteko (bai Errioxan, bai Burgosen).

Hasierako trazadura hura, Hernanitik igaro eta gero, leku garaietatik pasatzen zen, muinoz muino. XIII. mendearen hasieran, Alfontso VIII.a errege zela, Gipuzkoa Gaztelaren mende geratu zen, eta, orduan, hiribildu gotortuak eraiki zituzten Oria haranean (esaterako, Tolosa, Ordizia

eta Segura); hiribildu horiek udalerrien alde zaharrak dira egun. Beraz, ibilbide honek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen, Kostaldeko Bidearen kaltetan. Oriaren arrotik igarotzen den bide hori errazagoa zen, eta leku garaiak eta muinoak saihesten zituen; hala ere, derrigorrean egin behar zen San Adriango pasabidera igotzeko ahalegina. Bide-zati hori laburra zen, baina baita bihurria ere; Arabako Lautadako bide gozoetara iritsi aurretik gaingitu beharreko azken proba.

Bidaia batzuen lekukotasunek ez dute zalantzarik sortzen. Agian, Manierrek errealitate puztuko zuen San Adrian «munduko mendi garaienetako bat da» adierazi zuenean bere «Voyage a St. Jacques de Compostelle» liburuan (1730); hala ere, ezin da ukatu haitzean zulatutako pasabide horrek bidaiariei zirrara sortzen ziela.

Ibilbidea Bidasoa ibaiaren gaineko zubian hasten da, Santiago zubian. Donejakue Bideak Irunen duen trazadura hainbat ondare-elementuren ondotik pasatzen da; besteak beste, Junkaleko Andre Mariaren eliza, San Juan Harria plaza eta udaletxea nabarmendu behar dira. Adar batek Kostaldeko Bidearekin lotzen du ibilbide hori, Hondarribian, zehazki; leku horretara, halaber, Behobian hasten den ibilbidea iristen da.

Barnealdeko ibilbidea Oiartzunerantz abiatzen da, udalerriko gunen nagusira, Elizaldera, zehazki; handik, Iturriotz auzorako bidea hartzen du. Ibilbideak aurrera jarraitzen du, Sorozarreta, Oiartzabal eta Frantzesillagaberri baserrien ondotik pasatuz, eta, gero, Astigarragako Benten errepidera igotzen da; han idien probaleku zahar bat dago. Segidan, Manesenea baserriko bidea hartzen du; inguru horretatik Santiagomendiko basilizara igotzen da, Donejakue Bidearen erreferentzia garrantzitsua muinoaren goialdean. Bertatik, Artola eta Arraspiñe baserrietara iristen da. Oinezkoentzako bide bat abiatzen da hortik, eta, Agustindarren komentu ondotik pasatuta, Argiñeta bidera jaisten da; Santio Zaharreko bidean amaitzen da, Astigarragaraino eramango gaituen bidean.

Hernani/Donostia-San Sebastián tranbiaren ibilbide zaharretik jarraitzen du Oialumeko bidera eta Zinkoenea plazara arte; jada, Hernaniko alde zaharrean, udalerriko udaletxera iristen da.

Udaletxeko arkutik igaroz, Donejakue Bideak Hernaniko alde zaharra utzi eta Gurutze Santuaren Umildegirantz jarraitzen du; handik, Urnietako herrigunerako bidea hartzen du. Gero, Plazaolako tren zaharraren trazadura erabiltzen du, eta bertatik jarraitzen du Andoaingo herrigunera iritsi arte. Hiribildu horretan, udaletxerantz eta San Martin de Toursen elizarantz abiatzen da. Ibilbideak Andoaindik jarraitzen du, eta Leitzarain ibaia zeharkatzen du, Oria ibairaino iritsi baino metro batzuk lehenago; hala, Gurutze Santuaren basilizara iristen da. Andoaindik irtetzen da Izturitzagatorrearen aurretik pasatuz, eta Villabonarako bidea hartzen du.

Ibilbidea Apakintza eta Artolaenea baserrien ondotik pasatzen da, Adunaranzko norabidean. Aurrerago, Galarraga baserria igarota, Adunako gunera iristen da, eta, bertatik, Iparragirre baserria eta Gurutze Deunaren basiliza pasa eta gero, Villabona udalerrian sartzen da. Hurrengo kilometroetan, ibilbidea trenbidearen paralelo doa, Oria ibaiaren ertzean dauden baratzeen eta zelaien artean; gero, Anoetatik eta Hernialdetik barna jarraitzen du, Tolosako Triangulo plazara (lehen, Foruen Plaza) iritsi arte.

Tolosako alde zaharra atzean utziz Oria ibaia gurutzatuko du, eta, haran sakonetik jarraituz eta Kristo Santuaren basilizaren aurretik pasatuz, Alegiaranzko bidea hartuko du.

Alegiako alde zaharra zeharkatu eta gero, Ikaztegieta abiatuko da, Pilar basiliza zeharkatuz. Legorreta da hurrengo herria, eta, bertara, Oria gaineko zubitik sartzen da, Torreko Zubitik. Herrigunea igaroz, Itsasondora iritsiko gara. San Juan basiliza pasa eta metro gutxira, izen bereko auzora joateko bidea hartzen du. Zabale bidean barrena, Foruen pasealekuraino iritsiko

da, Ordiziara. Alde zaharra atzean utziz, hurrengo herrira abiatzen da, Beasainera. Donejakue Bidea udalerri horretako herrigunetik pasatzen da, Igartzako monumentu-multzora heldu arte. Olaberriako herrigune txikira iritsi aurretik, Altamira eta Garitain baserrien ondotik pasatzen da.

Olaberriatik Idiazabalera bidean, hainbat baserri igarotzen ditu, Aldasoro, Oiarbide eta Nafarragasti, bestea beste; halaber, Artsugarats galtzadatik barna, Gurutzetako baselizaren ondotik pasako da. Idiazabalen, Donejakue Bidea Gurutze Deunaren umildegitik igarotzen da, eta, aurrerago, Urrutikoetxea baserriaren ondotik; bertan hasten da Erdi Aroko Segura hiribildurantz eramango gaituen beheranzko bidea. Bidea Seguran sartuko da Beheko Portaletik, eta Kale Nagusitik barna jarraituko du; Zegamaranzko bidean, Saiatzeko bide-adarrarekin egingo du bat.

Adar hori Hernanin hasten da, eta Donejakueren bide interesgarria da, Gipuzkoako probintziaren erdialdea zeharkatzen duena. Hernaniko alde zaharretik irtenez, Donejakue Bidea Santa Barbara auzora iristen da. Hortik gora igota, Agirre baserrira iritsiko gara; gero, Lasarte-Oriako hilerritik igaroko da, eta, Zabaleta auzoa atzean utzita, Lasarte-Oriara jaisten da. San Pedro elizatik Zubietako gunerantz abiatzen da; han, Santiago eliza dago. Zubietako alde zaharra pasa eta gero, Letabide bidetik gora egiten du Olaikogainara arte, eta, handik, Zarate Benta zaharrerako bidea hartzen du (egun zaharberrituta dago). Saskarate baserriaren ondotik pasatzen den bideari jarraituz, Iturriotzeko bentara iristen da, eta, metro batzuk behera eginez, San Juan baselizara; inguru horretan, izen bereko iturria dago.

Baselizaren ondotik abiatzen da Zelatungo lepora igotzeko bidezidorra; hori Ernioaren gailurraren ondoan dago. Bide zahar batek beherantz egiten du, haran sakonera, Bidaniko herriguneraino; handik Albizturko Argisain auzorantz jarraitzen du, Santutxoko Bentaren ondotik pasatuz.

Elizaren aurretik abiatzen da Larrañaga baserrira daraman bidea, eta, hortik, Domiko mugarria dagoen muinora iritsiko gara; mugarri horrek mugatzen ditu Bidegoian, Beizama, Beasain eta Itsasondo udalerrien mugak. Bideak Arrapaitz iturriaren ondotik jarraitzen du, eta, segidan, Larrarteko muinora jaisten da. Laster batean, Otegi baserrirantz eta San Gregorio baselizarantz egiten du, eta, gero, jaitsi egiten da, Mandubiko bentara eta muinora.

Ezkio-Itsason, Mandubizar baserriaren aurretik pasatzen da, eta Kizkitzako Andre Mari baselizara arte iristen da (marinel-deboziokoa). Hortik behera egiten du Arteaga eta Aranaga baserrien aurretik igaroz, eta, azkenik, Ormaiztegiko kaleetara iristen da. San Andres elizaren atzeko aldetik itzalpeko plazara heltzen da, Zumalakarregi Museoaren aurrean. Ibilbidea Iparraldeko Trenbidearen geltokirantz abiatzen da, eta, han, meategiko trenaren antzinako bidea hartzen du, Lierniko Andre Mari baselizara iritsi arte. Antzinako bide batetik jaisten da Andramaiztegi baserriraino, eta, hala, Mutiloko herrigunera iristen da. Herrigunetik gora egiten du errepide batetik, eta Zeraingo plazara iristen da; han, antzinako galtzada hartuta, Seguraino heltzen da. Seguran, Oriaren haranetik barna gora doan ibilbidearekin egiten du bat.

Ibilbideak Zegamarantz doan errepidearen paralelo jarraitzen du. Herrigunea zeharkatu eta gero, Donejakue Bidea Gurutze Santuaren baselizarantz abiatzen da; handik hasten du San Adriango pasabidera iristeko igoera. Hainbat bidegurutze pasa eta gero, Iruetxeta baseliza eta Buenavista baserria igaroko ditugu, eta, aurrera jarraituz, Sancti Spiritus baselizara iritsiko gara.

Galtzadan aurrera, Altzaniako partzuergora iristen da bidea; handik San Adriango Tunela ikusten da, urrunean. Tunelaren barruan izen bereko baseliza dago. Txukun gorde den Erdi Aroko galtzadatik Eskaratzako ingurura heltzen da, eta, iturri bat ezkerrean utziz, behe-ibar batean sartzen da; handik, Portugainako lepora igotzen da, Gipuzkoa eta Araba arteko mugara.

Lepotik beheranzko bideari ekiten zaio, eta Aistrako San Julian eta Santa Basilisa baselizara heltzen da; eskuinetara, gurutze-bide bat dago, Zalduondora eramaten duena. Udalerrri horren irteeran, Lazarragatarren armarrria duen gurutze polit bat eta zubi bat ikus daitezke. Hurrengo udalerrira iritsi aurretik, Done Milian baseliza dago.

Bideak Erdoñana zeharkatzen du, Igokunde Andre Mariaren eliza goialdean duela. Agurainera iritsi baino lehen, beste hainbat lekuren aurretik pasatzen da: San Lazaro eta Madalenaren ospitale zaharra (egun, etxe pribatua), Bentaberriko edo Andre Mariako gurutzea eta, aurrerago, Zadorra gaineko zubia.

Aguraingo hiribildu harresitura iparraldetik heltzen da, eta, bertan, herrixka harresi artean babesten duten bi eliza gotortuetako bat ikus daiteke: Andre Maria eliza; udalerrria mendixka baten gainean dago. Donejakue Bideak hiribildua utziko du arkupedun San Juan plazatik eta Erregearen Ataritik irtenda, eta Gazeorantz joko du. Gazeon San Martin eliza ikus daiteke, bere margolan interesgarriekin; udalerrria alderik alde pasa eta gero, zelai arteko bide asfaltatu batetik irteten da, Ezkerekotxara heldu arte.

Ibilbideko hurrengo erreferentzia-gunea mendixka gainean dagoen irudi zuta da, Henaioko Gaztelua; Burdin Aroko herrixka zen, Alegría-Dulantzi oinean zuela. Erromatarren bidetik jarraitzen du, Aiarako Andre Mariaren baselizara heldu arte. Bideak Alegria ibaiaren paralelo jarraitzen du, antzinako eremu batera heldu arte; tenplu erromatar baten arrastoak daude oraindik, eta egun Arraraineko San Juan baseliza dago. Bertatik Burgelura jaisten da.

Burgeluko udalerrria zeharkatzen du, Villafrancara bidean. Aurrera jarraituz, Argandoñara iristen da. Udalerrri txiki hori utziz, Donejakue Bidearen ibilbide horrek Mendiluzko bidearekin egiten du bat, eta Askartzarantz jarraitzen du, Arkaiara daraman bidera atera arte; Arkaiaren elizaren aurretik pasatzen da. Behin Arkaiara zeharkatuz gero, burdinbidearen azpitik pasatuta, Elgorriagarantz abiatzen da Bidea, Vitoria-Gasteizko Udalak seinaleztatutako ibilbidearekin lotzeko.

Andre Mari Zuriaren plazako gunegarrantzitsuenera iristean, Erdi Aroko hirigunera eta Santa Mariaren katedral zaharrera igoko da. Bideak Vitoria-Gasteiz inguratuko du Armentiarara iritsi arte. Udalerrri horretatik irtetean, erromesak Gometzarantz eramango ditu Bideak, eta, behin parrokiak eliza igarota, Subilla-Gasteizera iritsiko da; han Simon de Anda Salazar landa-jauregia dago, eta, ondoan, gotorleku bat.

Bidea pinudi eta erkametz artetik igarotzen da, San Migeleko atakaraino, eta, azkenean, Villanueva de la Ocara iritsiko da. Udalerrria alderik alde pasatuz, La Puebla de Arganzonerako bidean jarraitzen du; azken hori, hain zuzen, Trebiñoko konderriaren baitan sartzen da (Burgosko probintzia, Gaztela eta Leon). Ospitale zaharra eta baseliza atzean utziz, udalerrri horretatik irteten da, eta Auritzera abiatzen da. Herria zeharkatu eta gero, erromatarren eta erromesen bide zaharra hartzen du; bertan, iturri zahar bat eta garbitegia ikus daitezke, Estavillo udalerrriaren atarian. Leku horretan, Donejakue Bideak bi ibilbide egiteko aukera ematen du: bata, Errioxara gerturatzen dena, eta, bestea, Burgoserantz abiatzen dena.

Errioxako lurretara iristeko, Donejakue Bideak Estavillo Berantevillarrekin batze du, Lezamako gainetik. Ez da hirigunetik pasatzen; hau da, inguratu egiten du, eta hilerriaren aurretik igarotzen da. Aurrera jarraituz, Zanbranarantzko bidea hartzen du; han, Santa Luzia parrokiak eliza ikus daiteke. Atzean, gurutze polit bat utzi eta Errekako Benta zaharraren hondarretara iristen da. Aurrerago sartuko da Arabako Errioxako lehenengo udalerrian, Gatzaga Buradonen; hala ere, ez da harresien bidez ondo babestuta dagoen alde zaharreraino sartuko. La Loberako antzinako ibilbidetik jarraitzen du, Conchas de Haroko pasabide mehar eta arriskutsua saihestuz. La Loberako mendatera iristean, beheranzko bidea hartzen du, Briñasera arte. Donejakue Bidearen ibilbidean

sartzen den «La Picota» elementu arkitektoniko eta jurisdikzional politaren aurretik pasatzen da; elementu horrek, zehazki, Euskadiko eta Errioxako autonomia-erkidegoen muga adierazten du. Briñas Errioxako udalerrian, Frantziako ibilbidearekin egiten du bat, eta, 24 kilometro eginez, Santo Domingo de la Calzadara iristen da.

Beste ibilbideak, La Puebla de Arganzonetik abiatzen denak, Miranda de Ebrora darama. Bide laburra da, eta, mendebalderanzko ibilbidean, Arabako bi ibai garrantzitsuenetakoak zeharkatzen ditu, bi zubi ederren bidez: Zadorra eta Baias.

Estavillo inguratu eta gero, Armiñonerantz jarraitzen du; han, San Andres eliza eta Montoya-Urbina jauregia daude. Etxe arteko paisaia meharak Erdi Aroko zubi batera darama; bidean hainbat bazterbide daude. Leku horretatik Rivabellosara jaisten da, eta, udalerritik irtetean, Baias ibaiaren gaineko zubira iristen da; egitura sendoa eta gogorra da, eta, goraxeago, errotako presaren horma lodiak babesten du. Ibilbideak Araba eta Burgos arteko mugara arte jarraitzen du, Miranda de Ebroren inguruetan; hain zuzen, bertan ematen zaio amaiera Donejakue Bideari, zehazki Gipuzkoako eta Arabako lurak zeharkatzen dituen San Adriango Tunelaren ibilbideari. Frantziako bideari ekin nahi izanez gero, Burgosera joan behar da, 83 bat kilometroko distantziara, gutxi gorabehera.

II ERANSKINA, URTARRILAREN 10EKO 2/2012 DEKRETUARENA


MUGAKETA

Mugaketa-eremua.


Ondarearen mugatzat II. eranskin honen dokumentu grafikoetan jasotakoa zehaztu da; funtsean, Donejakue Bidearen trazadurarekin bat dator. Era berean, Donejakue Bidearen baitan sartu da bide-trazaduraren euskarri den obra zibila, bai eta eranskin honetan adierazitako monumentu-multzoetarako zehaztutako mugak ere; horiek dagozkien zerrendetan jaso dira.

Kalifikatutako ondarearen mugaketa bere kasa justifikatzen da, deskribatutako elementuen balio kulturala dela-eta. Donejakue Bidearen mugaketa, berriz, beharrezkoa da, horri balioa emateko eta dagokion babes-erregimena koherentziaz aplikatzeko.


2012ko urtarilaren 27a, ostirala




2012ko urtarilaren 27a, ostirala





2012ko urtarilaren 27a, ostirala






2012ko urtarilaren 27a, ostirala







2012ko urtarilaren 27a, ostirala




2012ko urtarilaren 27a, ostirala




2012ko urtarilaren 27a, ostirala



2012ko urtarilaren 27a, ostirala



2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: C11
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA

Data / Fecha: 19/12/2011

Udalerría / Municipio: DEBA, MUTRIKU

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: C12
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA, BIZKAIA


Data / Fecha: 21/12/2011


Udalerría / Municipio: MUTRIKU, MARKINA-XEMEIN


Eskala / Escala: 1:20.000


2012ko urtarilaren 27a, ostirala












2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: C18
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: BIZKAIA
Udalerría / Municipio: ERRIGOITI, MUXIKA,
MORGA, LARRABETZU

Data / Fecha: 20/12/2011


Eskala / Escala: 1:20.000







2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: C22
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■

Lurraldea / Territorio: BIZKAIA
Udalerría / Municipio: BILBAO, BARAKALDO,
ALONSOTEGI

Data / Fecha: 20/12/2011

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa


DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: C23
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■

Lurraldea / Territorio: BIZKAIA
Udalerría / Municipio: BARAKALDO, SESTAO,
PORTUGALETE, ORTUELLA


Data / Fecha: 20/12/2011

Eskala / Escala: 1:20.000





2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zirkua


DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: Ce01
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: BIZKAIA, ALAVA
Udalerría / Municipio: ALONSOTEGI,
GÜEÑES, OKONDO


Data / Fecha: 20/12/2011


Eskala / Escala: 1:20.000




2012ko urtarilaren 27a, ostirala










2012ko urtarilaren 27a, ostirala










2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: T05
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA

Data / Fecha: 20/12/2011

Udalerría / Municipio: URNIETA, ANDOAIN, ADUNA

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: T06
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■

Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA
Udalerrria / Municipio: ADUNA, VILLABONA,
ZIZURKIL ANOETA

Data / Fecha: 20/12/2011

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: T07
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■

Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA
Udalerría / Municipio: ANOETA, HERNIALDE,
TOLOSA

Data / Fecha: 20/12/2011

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Dirección del Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: T08
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■

Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA
Udalerría / Municipio: TOLOSA, ALTZO,
ALEGIA, IKAZTEGIETA

Data / Fecha: 20/12/2011

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: T09
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA

Data / Fecha: 20/12/2011

Udalerría / Municipio: IKAZTEGIETA, LEGORRETA, ITSASONDO, ORDIZIA

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: T10
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA
Udalerría / Municipio: ORDIZIA, BEASAIN,
OLABERRIA, LAZKAO

Data / Fecha: 20/12/2011


Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala






2012ko urtarilaren 27a, ostirala



2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: T14
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: ALAVA


Data / Fecha: 20/12/2011

Udalerría / Municipio: GIPUZKOA ETA ARABAKO PARTZU
ORO.PARZONERÍA GRAL DE GIPUZKOA
Y ÁLAVA, ASPARRENA, ZALDUONDO


Eskala / Escala: 1:20.000










2012ko urtarilaren 27a, ostirala




2012ko urtarilaren 27a, ostirala










2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: T23
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: ALAVA

Data / Fecha: 20/12/2011


Udalerría / Municipio: ARMIÑÓN, BERANTEVILLA


Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala




2012ko urtarilaren 27a, ostirala





2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: T27
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: ALAVA

Data / Fecha: 21/12/2011


Udalerría / Municipio: LABASTIDA / BASTIDA

Eskala / Escala: 1:20.000


2012ko urtarilaren 27a, ostirala



2012ko urtarilaren 27a, ostirala



2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: Ts 02
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■

Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA

Data / Fecha: 21/12/2011

Udalerría / Municipio: USURBIL, ZIZURKIL, ASTEASU Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: Ts 03
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA

Data / Fecha: 21/12/2011

Udalerrria / Municipio: ASTEASU, AIA, ERREZIL

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: Ts 04
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA

Data / Fecha: 21/12/2011

Udalerría / Municipio: ERREZIL, BIDEGOIAN

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural


Planoa / Plano: Ts 05
DONE JAKUE BIDEA/
CAMINO DE SANTIAGO
■■■■■■■■■■


Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA
Udalerría / Municipio: BIDEGOIAN, ALBIZTUR,
BEIZAMA

Data / Fecha: 21/12/2011

Eskala / Escala: 1:20.000

2012ko urtarilaren 27a, ostirala





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección del Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano: **Ts 07**
**DONE JAKUE BIDEA/
 CAMINO DE SANTIAGO**

Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA

Data / Fecha: 21/12/2011

Udalerrria / Municipio: EZKIO-ITSASO,
BEASAIN, ORMAIZTEGI

Eskala / Escala: 1:20.000

III. ERANSKINA, URTARRILAREN 10EKO 2/2012 DEKRETUARENA

BABES-ERREGIMENA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Babes-erregimenaren izaera.

Babes-erregimen hau idazteko arrazoia Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 12. artikulua arautzen du. Donejakue Bidea Kalifikatutako Monumentu Multzo deklaratzeko izendapenaren baitan sartzen da, eta babes-erregimenak adierazitako alderdiek izaera loteslea dute kultura-ondasun hori kontserbatu edo berreskuratzeko eragiketetikiko. Hala arautzen dute adierazitako lege horretako 28.1. artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 199. artikulua. Horiek horrela izanda ere, hirigintza-planeamenduko bitartekoek arau murriztaileagoak xeda ditzakete, ondarea kontserbatzeko neurrien jardun-modua zehazteko.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

2.1.– Babestutako elementu guztiak Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen menpean egongo dira, alde hauei dagokienez: baimen-erregimena, erabilera, jarduera, defentsa, zigorrak, arau-haustea, esku-hartzeak eta abar.

2.2.– Jarraian finkatzen den babes-erregimena osorik aplikatuko zaie Donejakue Bideko elementu guztiei, hura Monumentu Multzo gisa duen kalifikazioaren barnean mugatuta dauden heinean eta kalifikazio horren berezko ondorena adieraziz.

2.3.– Monumentu edo Monumentu Multzo gisa kalifikatutako kultura-ondasunek edo etorkizunean izaera hori izan dezaketen kultura-ondasunek, izaera hori izateagatik, berariazko babes-erregimen bat badute, erregimen edo araubide hori izango zaie aplikagarri, eta araubide honen aplikazioa haien ordezkoa izango da.

3. artikulua.– Donejakue Bideari lotutako elementuak.

Donejakue Bidearen Monumentu Multzoari lotutako elementuak dira:

- a) Ibilbidea bera eta huraosatzen duten bide-motak.
- b) Bideaosatzen duen obra zibila.
- c) Bideari lotutako monumentu-multzoak eta higiezinak.
- d) Bideari lotutako beste elementu batzuk.

4. artikulua.– Garrantzi bereziko elementuak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.1.e) artikulua araututakoa betetzeko, garrantzi bereziko elementutzat joko dira babes bereziko elementuen zerrendan jasotako elementu guztiak, Donejakue Bideari lotuta daudenak.

5. artikulua.– Hirigintza-planeamendurekiko lotura.

5.1.– Bideari lotutako ondarearen babesaren baitan, babes-erregimen honek baldintza orokor batzuk finkatzen ditu, lurralde-izaerako planeamenduak zein babes-erregimen hau garatuko duen

hirigintza-planeamenduak bete beharrekoak. Azken agiri horien berrikuspenek ere bete beharrekoa izango dute babes-erregimen hau.

5.2.– Babes-erregimen honetan dauden ondasunei aplika dakiekeen hirigintza-plangintzak Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko. 28.1. artikulua aipatzen duen txostena beharko du. Txosten horretan edozein esku-hartzeren harmonizazio-maila jasoko da, oin berriko eraikuntzena barne.

5.3.– Babes-erregimen hau garatuko duten hirigintza-tresnak onartzen ez diren bitartean, goian aipatutako legeko 28.2. artikulua zehatz-mehatz bete beharko da.

6. artikulua.– Erabilerak eta zaintzeko betebeharra.

6.1.– Donejakue Bideari lotutako elementuen erabilerek bermatu egin behar dute haien kontserbazioa, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko III. Tituluaren zehaztapenak urratu gabe.

6.2.– Babes-erregimen honek aukera emango balu babestutako ondasunen ezaugarri tipologikoak eta formalak aldatuko dituzten esku-hartzeak egiteko, erabilerak aldatzeko eta/edo jarduerak egiteko Donejakue Bideari lotutako elementuei, betebeharrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak erabilera horiei buruz berariaz xedatzen duena betetzea. Xedapen horiek emateko, aldeztu aurretik txosten bat egin beharko du eragindako foru-aldundiaren organo eskudunak, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.3. Babes-araubide honen eraginpeko ondasunen jabeek Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 20. eta 35. artikuluetako betebeharrak izango dituzte, ondasunok iraunarazi, zaindu eta babesteari dagokienez.

7. artikulua.– Eraikuntzako esku-hartzeak.

7.1.– Espazio publikoetan burutu beharreko jarduera orok espazio horien izaera eta egitura indartuko du eta, halaber, hiri-altzariak multzo osoaren ingurune-izaerarekin integratu eta harmonizatuko ditu.

7.2.– Babes-erregimen honek aipatzen dituen birgaitzeko esku-hartzeen motak Ondare Urbanizatua Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan garatutakoak dira.

7.3.– Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak arautzen duenari jarraituz, kalifikatutako kultura-ondasunetan eta horien inguruetan egin nahi diren esku-hartzeek dagokion lurraldeko foru-aldundiaren baimena beharko dute, eta baimen hori eskuratu beharko da udal-lizentzia eskuratu aurretik. Erlijio-gurtzarako kultura-ondasunen kasuan, aintzat hartu beharko dira erabilera horrek dituen eskakizunak.

7.4.– Babes-erregimen honetako babes bereziko, ertaineko, oinarritzako eta partzialeko zerrendan dauden ondasunak eraistea, zati batean edo osorik, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 36. artikuluan eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuan jasotakoarekin bat etorritik egin ahal izango da soilik. 306/1998 Dekretua kalifikatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzkoa eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoak buruzkoa da. Eraikinak barrutik hustea zatikako eraisketa egitea da, eta, beraz, lege-betekizun hori bete beharko du.

8. artikulua.— Donejakue Bidearen seinaleztapena.

8.1.— Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren egitekoa izango da Donejakue Bidearen ibilbidea eta hari lotutako elementuen seinaleak jartzea.

8.2.— Donejakue Bideko seinaleztapenaren barruan sartuko diren elementuen normalizazioa eta zehaztapen formala gai hori garatuko duen aginduaren bidez arautuko da.

9. artikulua.— Esku hartzeko proiektuak.

9.1.— Babes berezia, ertaina edo oinarritzkoa araututa duten eraikinetan edozein esku-hartze egin aurretik, dagokion esku hartzeko proiektua egin beharko da. Hauek behar ditu esku hartzeko proiektu horrek:

a) Eraikinaren egoerari buruzko azterketa analitikoa; alegia, txosten historiko eta arkeologiko bat, eraikinaren deskripzioa, eta kontserbazio-egoerari buruzko azterketa, txosten diagnostikoa, ondorioak eta esku-hartzeko oinarritzko gomendioak biltzen dituenak.

Azterketa analitikoaren deskripzioak dokumentazio grafikoa jaso beharko du, 1/50 eskalan, gutxienez, oinak, aurretiko bistak eta sekzioak adierazteko; 1/20 eskalan, gutxienez, arkitektura-xehetasunak adierazteko; argazki-dokumentazio osoa, plano historikoak eta abar, eta egitura-sistemaren altxaera zehatza, dimentsionatua eta kotaduna. Dokumentazio horrekin batera azalpen-memoria aurkeztuko da, eta, baldin badago, eraikinari buruzko bibliografia.

Kontserbazio-egoerari buruzko azterketan —azterketa analitikoaren eranskin edo separata gisa aurkez daiteke—, beste batzuen artean, egitura-sisteman eragiten duten edo eragin dezaketen patologien azterketa eta elementu horiek zaintzeko beharrezko diren neurriak jasoko dira.

b) Dokumentazio grafikoa. Bertan, egin beharreko esku-hartzeak, erabiliko diren materialak, lanak egiteko exekuzio-faseak, zein bukaerako egoera adieraziko dira. Hori guztia eskala egokian egongo da, aurreko atalean eskatutakoan, gutxienez.

c) Esku-hartzearen helburuak, egingo diren lanak eta erabiliko diren teknikak adierazten dituen dokumentazio idatzia. Zer material erabiliko den adieraziko da, bai eta zer egonkortasun duen eta zer elkarreragin duen gainerako osagarriekin.

d) Eraikinaren bizitza ziurtatzeko eta egoki mantentzeko behar diren teknika eta bitartekoak zehaztea.

e) Esku-hartzearen aurrekontua, esku-hartze hori babes-erregimen honek ezarritako aginduen arabera burutzeko behar diren teknika eta bitarteko guztiak barne hartzen dituenak.

f) Esku-hartzearen ondorioz, eraikuntza-atalen edo -elementuren bat kentzea proposatzen bada, eragindako zonaren azterketa estratigrafikoa egin beharko da, atal edo elementuaren egungo egoera adierazteko eta esku-hartzearen beharrezkotasuna justifikatzeko. Arau hori bera bete beharko da azterketa analitikoak adierazitako kasu eta zonetan.

9.2.— Proiektuen dokumentazioaren xede izango dira obrak edo esku-hartzeak eragindako eraikin-zatia; hala ere, salbuespen izango dira haiekin lotutako alderdi orokorrekin egin beharreko erreferentzia grafiko eta idatziak, zati horiek hartzen dutena baino eremu handiagoi egin beharrekoak, edo, beharrezkoa bada, ondasuna bere osotasunean hartzen dutenak. Horren adibide izango dira esku-hartzea egin behar deneko kokapen-planoak eta esku-hartzeak berak eskatzen dituen gainerakoak.

II. KAPITULUA

BIDE-TRAZADURA, DONEJAKUE BIDEAREN EUSKARRI

10. artikulua.— Bide-trazadura, Donejakue Bidearen euskarri.

10.1.— Babes-erregimen honetan, bide-trazadura osatuko dute Donejakue Bideak Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzean euskarritzat dituen pistak, bideak, bide historikoak, errepideak eta kaleak, Donejakue Bideak berak dituen bi ibilbideetan: kostaldeko bidean eta San Adriango tunelaren bidean.

10.2.— III. eranskineko planoetan adierazten da Donejakue Bidearen bide-trazadura.

10.3.— Bidearen trazadura aldaezina izango da obra zibiletatik igarotzean eta trazaduraren euskarri diren elementu babestuetatik igarotzean. Espediente honetan adierazten dira horiek guztiak. Trazaduraren beste zatiak ere aldatzeko aukera izango da, baldin eta aldaketa hori justifikatzeko nahikoa arrazoi badago. Trazadura aldatzen bada, aldez aurretik aldatu egin beharko da Donejakue Bidea kultura-ondasun gisa kalifikatzen duen dekretua.

10.4.— Hirigintza-antolamenduaren beharrianak direla eta beharrezko izango balitz Bidearen trazadura igarotzen den lurzoruen sailkapen aldatzea, sailkapen berriak berekin ekarriko du honako babes-erregimen honen 13, 14 eta 15. artikuluetan zehaztutakoetatik aplikaziokoa gertatzen zaion erregimenera berehala egokitzea.

10.5.— Administrazio eskudunak izango dira, Bidearen euskarri trazadura-motaren arabera, bide-trazadura egoera onean zaintzearen arduradunak; ildo horretatik, neurriak hartuko dituzte Bidearen zatiak kaltetu edo hondatu ez daitezen, eta bide-trazadura zaintzeko eta babesteko berezkoak diren eginkizunak beteko dituzte.

11. artikulua.— Bide-trazaduraren sailkapena.

Donejakue Bidearen trazadurak arazo mota diferenteak dakartza trazadura horren euskarri den bide eta lurzoru motaren arabera; hala, bide-trazaduraren sailkapen hau finkatzen da, kasuan-kasuan egokiak diren babes-neurriak ezartzeko:

a) Bide historikoak, bideak eta pistak. Aitorpenaren unean landa-lurretan kokatuta dauden bide-trazadurak dira, asfaltatuak nahiz asfaltatu gabeak, trazadura horiei hirigintzari buruzko indarreko legedian aurreikusitakoa aplikatuz lurzoruaren beste sailkapen bat aplikatzearen aukeraren kalterik gabe, eta sektore-legediak errepide gisa sailkatuta ez dauzkanak.

b) Errepideak, hiru lurralde historikoetako foru-arauek araututako kategorien arabera.

c) Hiri-lurzoruan dauden kaleak, hirigintza-planeamenduek zehaztutako moduan.

12. artikulua.— Babes-eremuak.

12.1.— Babes-eremu hauek zehazten dira, 11. artikuluko a) paragrafoan adierazten diren ibilbideentzat, Donejakue Bidearen euskarri diren heinean:

– Zortasun-eremua.

– Afekzio-eremua.

12.2.— Zortasun-eremua izango da Donejakue Bidearen ondoan paraleloan doan lur-zerrenda, 3 metroko zabalerakoa, Bidearen euskarri den laugunearen ertzetik neurtuta.

12.3.– Donejakue Bidearen afekzio-eremua izango da Bidearen ertzetatik paraleloan doan lur-zerrenda, zortasun-eremuaren mugaren eta Bidearen euskarri den laugunearen ertzetik 30 metrora izango den lerroa bitartekoa, eta, behar izanez gero, hiri-lur edo lurzoru urbanizagarrien mugaraino, muga hori Bidetik 30 metrora baino gutxiagora dagoenean.

12.4.– Zortasun– eta afekzio-eremuak bakarrik izango dira operatibo bide historikoak, bideak eta pistak lurzoru urbanizaezinean irautesen duten bitartean, edo lurzoru urbanizagarrian irautesen duten bitartean, kategoria guztietan, lurzoru hori garatu eta hiri-lurzoru bihurtu arte.

12.5.– Baldin eta hirigintza-plangintzatik sorrera berriko hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian Bidearen afekzio-zerrendetako bat eranstea planteatzen bada, kasu horretan afekzio-zerrenda hori zortasun-eremuaren mugaraino murriztu ahal izango da, eta arreta berezia izango da lurzoru horien ertz-tratamenduan, Bidearen trazadurarekin zuzeneko lotura baitauka tratamendu horrek.

13. artikulua.– Trazadurari aplikatuko zaion araubidea bide historikoetatik, bideetatik, eta pistetatik igarotzen denean.

13.1. Zehaztapen orokorrak.

13.1.1.– Donejakue Bidea bide historikoetatik, bideetatik eta pistetatik igarotzen den zatian debekatuta izango da motordun ibilgailuetan zirkulatzea, salbu eta, babes-araubide hau indarrean sartzeko unean, finkaren edo baserriren batera sartzeko bide bakar diren zatietan.

13.1.2.– Zehaztapen hauek bete behar dira 12.2 artikulua zehaztutako zortasun-eremuan:

a) Eraikitzeak ez diren jarduerak:

- Debekatuta daude meatze-ustiapena, harri-materialen erauzketa eta harrobiak.
- Debekatuta daude lur-mugimenduak, hurrengo epigrafean baimentzen diren azpiegiturak ezartzeko behar direnak izan ezik.

b) Eraikuntza-jarduerak:

– Zerbitzuren bat emateko azpiegiturak sortzea eta hodiak sartzeko jarduerak onargarriak izango dira. Horretarako baimena dagokion aldundiko Kultura Sailak emango du, behin egitasmo osoa aurkeztuta. Egitasmoan bideak jasango duen eragina azalduko da, eta bidea behar bezala osatzeko neurriak proposatuko dira.

13.1.3.– Zehaztapen hauek bete behar dira 12.3 artikulua zehaztutako afekzio-eremuan:

a) Eraikitzeak ez diren jarduerak:

- Lur-mugimenduak egitea, luberritzea, zura eta egurra ustiatzea eta antzeko jarduerak onargarriak izango dira, aldundi arduraduneko Kultura Departamentuak baimena emanaz gero.
- Debekatuta izango da meatze-ustiategi eta harrobi berriak egitea.

b) Eraikuntza-jarduerak:

– Bidea eta bere ingurua kontserbatu, hobetu eta harekin gozatzeko azpiegiturak, zerbitzuak eta instalazioak egitea onartuko da. Horretarako berariazko baimena eskatuko zaio aldundi arduraduneko Kultura Departamentuari, 13.1.2.b). idatzi-zatiak agintzen duenez.

13.2. Pistetarako erregimen aplikagarria.

13.2.1.– Bideko pistetan, aurreko 13.1 paragrafoan xedatutako jardueraz gain, zoruari eusteko eta hura hobetzeko jarduerak baimenduko dira. Horien lehentasunezko erabilera izango da oinezkoek, bizikletek edo zaldiek erabiltzea, eta, horrez gain, nekazaritza eta basogintzarako makinek erabiltzea onartuko da.

13.2.2.– Pistak nekazaritzako eta basogintzako makinek erabiliko badute, toki-administrazioek alde aurreko bermeak ezarri beharko dituzte erabilera horiek baimendu baino lehen. Horren xedea izango da zorua bere onera ekarriko dela ziurtatzea makinek kalteak eragiten badituzte pistetatik igarotzean.

13.3.– Bide historikoen berariazko erregimena.

Bide historikoetan, 13.1 paragrafoan xedatutako jardueraz gain, honako jarduera hauek aurreikusten dira:

13.3.1.– Haiek sendotzeko eta haien trazadura kontserbatzeko jarduerak baimenduko dira, baita haien zorua hobetzekoak ere, material bigunekin amaitutakoak badira. Kasu guztietan, haien zabalerari eutsiko zaio, oinezkoek soilik erabiliko dituzten bideak izaten jarrai dezaten.

13.3.2.– Oinezkoak, bizikletak eta zaldiak soilik ibil daitezke bide historikoetan, eta berariaz debekatzen da motordun ibilgailuak haietatik ibiltzea. Horren salbuespena izango da bide horiek izatea, babes-erregimen hau argitaratzen den unean, finka edo baserrietara joateko sarbide bakarra. Salbuespen horiek ematen badira, bidea bikoizteari ekingo zaio. Makinek ezin dute bide horietatik igaro edo bide horiek erabili.

13.3.3.– Babestu egingo dira, beren kultura-balioari erreparatuta, babes-erregimen honen IV. eranskineko 1. zerrendan adierazten diren bide historikoak.

14. artikulua.– Bidearen trazaduraren erregimena errepidetatik igarotzean.

Donejakue Bideko zatiren bat izaera publikoko errepidea bada, hiru lurralde historikoetako foru-arauek zehaztutako mailetatik edozeinetakoa, foru-arau horiei jarraituko zaie babes-gunea, onartutako eta debekatutako erabilerak, eraikitze-lerroak eta horrelako gaiak erabakitzeko. Azpiegitura horietan mantentze-lanetatik haratagoko birgaitze-lanak egiteko asmoa bada, oinezkoen segurtasuna handitzeko neurriak hartuko dira; horretarako, beharrezkoa den tokietan, bide-trazadurarekiko paraleloak diren bideak egingo dira (oinetzkoentzat eta/edo bidegorriak) eta pasabideak eta bidegurutzeak konpondu. Beti bermatu behar da Donejakue Bidearen jarraipena.

15. artikulua.– Bidearen trazaduraren erregimena hiri-lurzorutik igarotzean.

Bidea hiri-lurzoruko kaleren batetik badoa, kalearen zabalera osoa hartzen duela ulertuko da, eta bere erregimena zehazteko, dagokion udal-planeamenduak araututakoari jarraituko zaio. Dena dela, trazadura aldatzeagatik ez da inola ere kale hori kentzeko aukerarik izango.

III. KAPITULUA

DONEJAKUE BIDEARI LOTUTAKO OBRA ZIBILAK

16. artikulua.– Donejakue Bidearen euskarri diren obra zibilak

Kapitulu honetan, Donejakue Bidearen trazaduraren euskarri diren obra zibiletan egin daitezkeen eraikuntza-interbentzioak eta haietan onartuko diren erabilerak arautzen dira. Bidearen euskarri diren obra zibilak izango dira IV. eranskineko 2. zerrendan, «Babes erregimenari erantsitako zerrendak», adierazten diren zubi eta galtzadak.

17. artikulua.– Galtzadak.

17.1.– Donejakue Bideari lotuta izango dira IV. eranskineko 2.1. zerrendan adierazten diren galtzadak, eta babes-maila bakarra ezartzen da Bidearen euskarri diren harbide-tarte guztientzat.

17.2.– Galtzada horietako jardueren helburua eraikuntza-alderdiak zaharberritzea izango da, baita hondatutako zatiak beren jatorrizko egoerara leheneratzea ere. Kasu horietan, honela jokatu da:

- Harri-taularen planoak zaharberrituko dira.

- Botatako zatiak berreraikiko dira, lan filologikoa eginez. Materialak eta teknikak jatorriz erabilitakoak izango dira.

- Elementuren bat ezin bada zaharberritu materiala, kokapena edo kota aldatu gabe, ordeztu egingo da.

17.3.– Harbideak diren galtzada-zatietan, oinezkoak, bizikletak eta zaldiak ibiltzea baimenduko da soilik, eta berariaz debekatzen da motordun ibilgailuak haietatik igarotzea eta makinak igaro edo erabiltzea galtzada horietan.

17.4.– Galtzada-zatiak kalte ditzaketen jarduerak egitea debekatzen da Bidearen inguruan. Esaterako:

- Zuhaitzak moztea edo basoak soiltzea debekatzen da, bidetik 10 metro baino gutxiagotara badaude.

- Ezin da ezer landatu bidetik 10 metro baino gutxiagotara.

- Meatzeak edo harrobiak ustiatzea debekatzen da, harriak eta antzekoak ateratzea eta lehergailuak erabiltzea behar duten jarduera guztiak, bidetik 50 metro baino gutxiagotara egin behar badira. Debekatuta izango da harrobi berriak egitea Bidetik 250 metro baino gertuago.

- Debekatuta dago lur-mugimenduak egitea bidetik 30 m baino gutxiagotara. Horren salbuespena izango da bidea bikoizteko beharrezkoa izatea lur-mugimendu horiek egitea, babes-erregimen honen 13.7. artikuluan arautzen den moduan. Galtzada bera konpontzeko beharrezkoa denean ere onargarria izango da.

- Debekatuta dago galtzadaren albo bietatik 30 metro baino gutxiagotara ezer eraikitzea, azpiegiturak barne.

- Horrez gain, galtzaden inguruko arbolak sustraiek galtzadei kalte egin diezaieketela ikusita, galtzada-ertzetik 3 metro baino distantzia laburragora dauden arbolak baino ez dira moztu behar, baldin eta galtzadari kalte egiten diotela modu frogagarrian egiaztatu bada; debekatuta egongo da, ordea, haiei dagozkien motzondoak eta sustraiak erauztea.

18. artikulua.– Zubiak.

18.1.– Donejakue Bideko zubiek arkitekturaren eta arte eta historiaren ikuspegitik duten balioari erreparatuta, bi babes-maila sortuko dira: babes berezia eta oinarritzko babesa.

18.2.– Babes berezia.

Babes-maila honetan arkitektura-itxura zaharberritzea eta aldatutako aldeak jatorrizko egoerara leheneratzea besterik ez da onartuko. Horretarako, hauek egin daitezke:

- Zubiaren fabrika zaharberritzea.
- Jausitako edo eraitsitako zatiak berreraikitzea, lan filologikoa eginez.
- Berreskuratu ezinezko zatiak ordeztzea, ondoko elementuen posizioa edo kota aldatu gabe:
- Profila.
- Arkuak.
- Zubi-brankak eta zutabeak.
- Taulak.
- Egokiak ez diren eranskinak eta interesik ez dutenak kentzea eta zubiarekin edo horren inguruarekin bat ez datozen obra berriak ezabatzea.

18.3.– Oinarrizko babesa.

Aurreko paragrafoan adierazitako jardueraz gain, ondorengoak ere onartzen dira maila honetan:

– Zubiaren fabrika zaharberritzea. Zati batzuen aldaketak onargarriak izango dira, konposizioaren batasuna ez bada hausten eta estilistikaren aldetik balio handia duten elementuak errespetatzen badira.

– Taulan bertan lanak egitea, handik igarotzen den trafikoa optimizatu eta egokitzeko, hegalkin zabal bat eraikiz.

19. artikulua.– Babes bereziko zubiak.

Babes-erregimen honen IV. eranskineko 2.2. zerrendan adierazten diren zubiek izango dute babes bereziko maila.

20. artikulua.– Oinarrizko babesa izango duten zubiak.

Babes-erregimen honen IV. eranskineko 2.3. zerrendan adierazten diren zubiek izango dute oinarrizko babesa.

IV. KAPITULUA

DONEJAKUE BIDEARI LOTUTAKO MONUMENTU-MULTZOAK ETA HIGIEZINAK

1. ATALA

ALDEZ AURREKO GAIAK

21. artikulua.– Esparrua.

Donejakue Bideari lotutako monumentu-multzoak eta higiezinak izango dira babes-erregimen honen IV. eranskineko 4. zerrendan adierazten direnak.

22. artikulua.– Babes-maila.

Arau honen I. kapituluari adierazten diren xedapen orokorrez gain, babes-maila hauek izango dituzte Donejakue Bideari lotutako monumentu-multzoek eta higiezinak:

- Babes berezia.

– Babes ertaina.

– Oinarrizko babesa.

23. artikulua.– Babes-ingurunea.

23.1.– Bideari lotutako ondasunek 15 metroko babes-ingurunea izango dute, babes berezi eta ertainekoak badira. Ingurune horrek ondasunari berari eta hura inguratzen duten espazio libreei eragingo die.

23.2.– IV. eranskineko 3. zerrendan adierazten diren monumentu-multzoek, aurreko babes-ingurune horrez gain, II. eranskineko planoetan adierazten den babes-eremua izango dute.

23.3.– Oinarrizko babesa duten ondasunek ez dute babes-ingurunerik izango.

2. ATALA

BABES BEREZIA

24. artikulua.– Babes bereziaren xedea.

Babes berezia izango dute monumentu edo monumentu-multzo deklaratuak izan diren elementuak, sailkatutako kultura-ondasunen kategorian, bereziak izateagatik eta arkitektura-, arte-, historia- edo kultura-aldeetatik aparteko balioak edukitzeagatik. Babes berezi hori izango dute, halaber, babes-erregimen honen eranskineko zerrendetan izaera horrekin adierazten direnak.

25. artikulua.– Babes bereziko elementuei buruzko xedapenak.

25.1.– Babes bereziko maila duten elementuetan, erregimen honetako gainontzeko arau orokorreaz gain, hauek izango dira derrigorrean betetzekoak:

25.2.– Babes bereziko eraikinei maila goreneko babesa dagokie; bertan burutzen diren eraberritze-jarduerek eta baimendutako gainerako esku-hartzeek eraikinen egitura eta ezaugarriak errespetatu beharko dituzte eta ezin izango dute inolaz ere asmatutako edo diseinu berriko ekarpenik egin.

25.3.– Babes berezia duten ondasunen eraisketa osoa edo zati batena Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikulua arautzen duenaren arabera soilik baimendu ahal izango da.

25.4.– Elementu horiei eragiten dien edozein lan edo esku-hartzeetan ezin izango dira aldatu konfigurazio bolumetrikoa eta lerrokadurak.

25.5.– Higiezin horietan gauzatuko diren erabilerek eraikinen kontserbazioa bermatu behar dute, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko III. Tituluaren xedapenak urratu gabe

25.6.– Elementu horietan, kontserbatzeko eta balioa emateko eraikuntza-lanak egin ahal izango dira, eta horretarako, zaharberitze zientifikorako ezarritako obrak egin ahal izango dira, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, Ondare Urbanizatua Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzkoak, adierazten dituenak.

26. artikulua.– Babes berezia izango duten elementuen zerrenda.

Babes-erregimen honen IV. eranskineko 3.1. zerrendan adierazten diren elementuek izango dute babes bereziko maila.

3. ATALA

BABES ERTAINA

27. artikulua.– Babes ertainaren xedea.

Babes ertaina izango dute euskal kultura-ondareko elementuek, baldin eta, ingurumen-balioetatik haratago, monumentu edo monumentu-multzoen izendapena jaso badute, inbentariatutako ondasun gisa. Babes ertain hori izango dute, halaber, babes-erregimen honen eranskineko zerrendetan izaera horrekin adierazten direnak honako baldintza hauetakoren bat betetzeagatik:

a) Garrantzi bereziko elementu arkitektoniko eta/edo kulturalak dituzten elementuak, baldin eta ezin badira babes bereziko elementuentzat zehaztutakoen barruan sartu elementu horiek berreskuratzeke esku-hartzeak.

b) Garrantzi bereziko arkitektura-baliorik izan ez arren, eraikitako ondarearen zati interesgarriak direnak, kanpoko egiturarengatik edo haien tipologiarengatik, barruko banaketa dela-eta, banaketa bertikaleko elementuak jartzeko modurengatik, lursailean duten okupazio eta kokapenarengatik edo beste edozein ezaugarri morfologikorengatik.

28. artikulua.– Babes-maila ertaineko elementuei buruzko xedapenak.

28.1.– Babes-maila ertaineko elementuei dagokienez, beharrezkoa izango da babes-erregimen honek adierazitako jarraibide orokorrak betetzea, eta, orobat, honako beste betebeharrak ere errespetatzea:

28.2.– Eraikin horiek guztiz edo zati batean eraisteko, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikulua eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuak (sailkatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharreko buruzkoa) araututakoa bete beharko da.

28.3.– Eraikin horiei eragiten dien edozein lan edo esku-hartzetan ezin izango da aldatu egitura bolumetrikoa ez eta lerrokadura ere.

28.4.– Eraikin horietan gauzatuko diren erabilerek eraikinen kontserbazioa bermatu beharko dute, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko III. Tituluaren zehaztapenak urratu gabe.

28.5.– Babes ertaina duten eraikin eta elementuetan baimendutako esku-hartzeek kontserbazioa eta funtzionalitatea bermatzea izango dute helburu, eta elementu tipologikoak, formalak eta egiturazkoak errespetatu beharko dituzte. Babes bereziko erregimenean baimendutako esku-hartzeak egin ahal izango dira, bai eta, eraikinek izan dezaketen egoeraren arabera, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, Ondare Urbanizatua Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzkoak, A eta B kategorian arautzen dituen birgaitze kontserbatzaileko obrak ere.

29. artikulua.– Babes ertaineko elementuen zerrenda.

Monumentu-multzo gisa zehaztutako eremuan, arau honetako IV. eranskineko 3.2 zerrendan jasotzen diren higiezinak eta elementuak dira babes-maila ertaina dutenak.

4. ATALA

OINARRIZKO BABESA

30. artikulua.— Oinarrizko babesaren xedea.

Oinarrizko babes-maila izango dute aurreko mailetan sartzeko behar besteko balio indibidualik ez duten elementuek; baldin eta, elementu horiek, inolako zalantzarik gabe, Donejakue Bideko Monumentu Multzoari lotutako elementuak badira honako baldintza hauetakoren bat betetzeagatik:

a) Balio arkitektoniko, historiko edo artistiko berezirik ez izan arren, finkatzea egokitzat jotzen diren elementuak, haien tipologiaren ikuspegitik edo ingurumenaren ikuspegitik ondare eraikiaren alderdi interesgarri direlako. Hala ere, elementu horiek ez dira interesgarriak babes ertaineko mailan sartu eta haietan zaharberritze-lanak egiteko.

b) Historia— edo arkitektura-balio handiak izanagatik ere, haiek birgaitzeko jarduerak babes handiagoko elementuetarako araututa dauden berreskuratze-lanen baitan sartuta ez daudenak.

31. artikulua.— Oinarrizko babes-mailako elementuei buruzko xedapenak.

31.1.— Oinarrizko babes-maila duten higiezinak osorik edo zati batean eraisteko, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikulua eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuak araututakoa bete beharko da. Azken dekretu hori kalifikatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen auri-egoeraren deklarazioari eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharreko jarduketei buruzko da.

31.2.— Eraikin horiei eragiten dien edozein lan edo esku-hartzetan ezin izango da aldatu higiezinaren kanpoko irudia, higiezinaren egituraketa bolumetrikoa eta lerrokadurak, ez eta oinarrizko egitura-tipologia ere, eta egituraren material generikoa mantenduko da.

31.3.— Eraikin horietan baimendutako esku-hartzeak, babes-maila gorenetan sartutakoez gain, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoan, jasotakoak izango dira, egonkortzea deituriko esku-hartze motarako, bai eta esku-hartze kontserbatzaile eta apaindurakoak eta a) motako eraberritzeak ere.

32. artikulua.— Oinarrizko babes-maila izango duten elementuen zerrenda.

Donejakue Bidearen Monumentu Multzoan, babes berezia izango dute babes-erregimen honen IV. eranskineko 3.3. zerrendan adierazten diren higiezin eta elementuek.

5. ATALA

ERAIKINEN HONDARRAK

33. artikulua.— Zehaztapenak.

Donejakue Bidearen Monumentu Multzoari lotutako higiezinaren hondarrak eta/edo egitura puntualak soilik geratzen badira eta ez badira aurrez adierazi diren babes-mailaren batean jaso, eraistearen eta haien desagertzearen aurkako babes orokor bat izango dute, babes-erregimen honen artikulua orokorrean bidez.

33.1.— Aurreko paragrafoan adierazi diren baldintzak betetzen dituzten higiezinetan baimen daitezkeen jarduketa bakarrak egungo hondarrak finkatzekoak izango dira, haiek desagertu ez

daitezen. Horren harian, geratzen diren hondarren arkeologia-azterlan egokiak egin beharko dira aldez aurretik.

33.2.– Aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eraikinen zerrenda adierazten du babes-erregimen honi erantsitako «Donejakue Bideari lotutako eraikinen hondarrak» izeneko 4. zerrendak.

V. KAPITULUA

DONEJAKUE BIDEARI LOTUTAKO BESTE ELEMENTU BATZUK

34. artikulua.– Definizioa.

Babes-erregimen honetan, «Donejakue Bideari lotutako beste elementu batzuk» izango dira babes-erregimen honen IV. eranskineko 5. zerrendan adierazten diren elementuak.

35. artikulua.– Pikotak eta udalerri-mugen gurutzeak.

Donejakue Bideko pikotak eta udalerri-mugen gurutzeak babes-maila bakarrean sartuko dira. Babes-xedapen hauek ezartzen dira:

– Aldatutako zatiak leheneratzea, hondatuta dauden zatien berreraikuntza filologikoa eginez. Euskarri den materiala berreskuratzeko (harria, metala), material horientzat kaltegarriak ez diren teknikak erabiliko dira. Inola ere ez da onartuko zorrotadaka garbitzea, ez urez, ez hareaz. Konkrezioak garbitzeko, bestalde, ez da soluzio kimikorik erabiliko. Koskak betetzeko, harri bereko hautsa eta erretxina epoxidikoak erabiliko dira.

– Erretxinak eta sarrera-elementu haridunak aukeratuko dira plana, fustea, gurutze-errematea eta testuak sendotzeko. Horien kokapenak edo kotak ez dira aldatuko.

– Eranskin desegokiak kenduko dira, eta, horrez gain, berriki egindako obrak kenduko dira, interesgarriak ez badira edo elementuaren historia eta arteko ezaugarrieekin bat ez badatoz.

36. artikulua.– Iturriak, uraskak eta garbitegiak.

36.1.– Iturriek, ur-hodi soilak ez badira eta hiri-altzaritzat har daitezkeen elementuak badituzte, aurreko artikuluan araututako baldintzak bete behar dituzte.

36.2.– Sorburu naturala lehorteagatik Donejakue Bideko iturriren bat urik gabe geratzen bada, dagokion udala arduratuko da horniduraz, sare publikotik edateko ura hartuta.

36.3.– Obrarik edo esku-hartzerik egiten bada IV. eranskineko 5. zerrendan adierazitako garbitegi edo urasketan, esku-hartze horiek bere horretan utzi behar dituzten haien bolumen-egitura eta lerrokadurak. Elementu horietan baimendutako esku-hartzeak, babes-maila gorenetan adierazitakoez gain, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak, adierazten dituenak izango dira, sendotzea eta berriztatzea izeneko eraikuntza-interbentzioen baitan.

IV. ERANSKINA, URTARRILAREN 10EKO 2/2012 DEKRETUARENA

ZERRENDAK

1. zerrenda: Donejakue bideari lotutako bide historikoak.

Kostaldeko Bidea.

Gipuzkoa.

273. Gurutze-bidea – Santa Barbara bidea (Hondarribia).

277. Saroizigarroenea – Guadalupe bidea (Hondarribia).

276. Jaizkibeleko bidea (Hondarribia).

78. Jaizkibeleko bidea (Lezo).

155. Jaizkibeleko bidea (Pasaia).

1706. Txerritxutu – Muniota bidea (Donostia-San Sebastián).

1707. Uliako bidea (Donostia-San Sebastián).

85. Txerritxutu – Muniota bidea (Orio).

107. San Pablo – Oribarzar bidea (Aia).

86. Usaberartza – Itziar bidea (Deba).

197. Eizagirre – Aparain bidea (Mutriku).

Bizkaia.

321. Erdotza – Iruzubieta bidea (Markina-Xemein).

88. Erdotza – Iruzubieta bidea (Ziortza-Bolibar).

89. Alegriako bidea (Ziortza-Bolibar).

90. Ziortza – Gorontzugarai bidea (Ziortza-Bolibar).

134. Uriona – Garro bidea (Munitibar –Arbatzegi Gerrikaitz-).

135. Urnatei – Bekoerrota bidea (Munitibar –Arbatzegi Gerrikaitz-).

136. Bulukua – Berriondo bidea (Munitibar –Arbatzegi Gerrikaitz-).

32. Zarra – Elexalde bidea (Mendata).

33. Bolukua – Berriondo bidea (Mendata).

40. Zarra – Elexalde bidea (Arratzu).

144. Billikarioko bidea (Gernika-Lumo).

101. Billikarioko bidea (Muxika).

34. Billikarioko bidea (Errigoiti).

37. Landotz – Pepiena bidea (Morga).

93. Astorekako bidea (Larrabetzu).

45. Gaztakinazabalaga bidea (Zamudio).

46. Iturritxualde (Avril) mendia (Zamudio).

1591. Iturritxualde (Avril) mendia (Bilbao).

1590. Kobeta – Kastrexana bidea (Bilbao).

112. La Arena – Kantabriako muga bidea (Muskiz).

Enkarterriko ibilbideak.

125. Bolunburu – Balmaseda bidea (Zalla).

126. Bolunburu – Balmaseda bidea (Balmaseda).

San Adriango Tunelaren Bidea.

Gipuzkoa.

389. Altzubideko bidea (Irun).

132. Pinto erreka bidea (Oiartzun).

155. Portuluze – Listorreta bidea (Errenteria).

68. Nafarrasagastibarrena – Otazabal bidea (Idiazabal).

80. San Adriango bidea (Zegama).

